

## 12. Juan Migel Sansinenea Goñi 1903-1973, donostiarra

Komunikazioaren egilea: Jon Urruxulegi donostiarra, itzultzailea, ikerlea eta Gramateka proiektuaren sustatzailea.

### 12.1. Bizitza



Ondoren topatu dugun gutun bat dago baina egilea ez dakigu zein izan den. Bertan Juan Migelen bizitzaren zertzelada nagusienak ikusi daitezke:


Gizon apartekoa izan zen Sansi: garaiz aurretik bizi den horietakoa, bide urratzailea. Mediku ikasi ondoren, pediatra lanetan ari izan zen Donostian; gerra ondoren, ordea, oztopoak izan zituen langintza horretan jarraitzeko, eta utzi egin behar izan zuen.

Gerra garaia Iparraldean pasatu zuen, Sarako *Prefetenea* etxean, Doroteo Ziaurizekin batera lehendabizi, eta Ziburun geroago.

Berrikuntza zalea zen oso. Mediku lanetan aritzea debekatu izanagatik ere, ez zen geldirik egotekoa. Etnografian zaletua, Arantzadi Zientzi Elkartearen sortu zuenetako bat izan zen. Jorge Oteizaren lagun handia eta mireslea izan zen; Luis Vallet arkitekto irundarra eta Luis Mariano kantaria ere lagun izan zituen.

Negozioak etengabe izan zituen eskuartearen, sekula aberastu ez arren. Hegazkinetarako helizeak, janari izoztuak (Corellan izan zuen *Otz* izeneko lantegia), bakailao giblez egindako olioak (Pasaia Donibanen izan zuen lantegia, *Pysberen* ondoan)... denetatik egin zuen Sansik. Bere ametsetako bat ere aurrera eramanean zuen: Formigaleko eskilekua; hango pista, teleaulki eta arraste guztiak berak diseinatu eta jarriak dira.

Ibizan hotelgintzan ere aritu zen. Han zelarrik, prostatako gaitza sortu zitzaion; Bartzelonan egin zioten ebakuntza arazorik gabe, baina odol transfusioan hepatitisak kutsatu zioten. Egun osoa ohean egin behar eta, liburu harrigarria idatzi zuen: *Ur de los vascos*. Munduko ibaien izenak aztertuta, UR euskal hitza antzeman nahi izan zuen guztien oinarrian. Beste gauza askoren artean, halako utopia ere aurkeztu zuen liburuan: satelite bidezko harreman sare unibertuala... gaur egungo Internet, alegia!



Alaitasun eta kemen handiko gizona izan behar zuen; hepatitisak jota zegoela, ohetik jaiki eta Nautikora ihes egiten omen zuen isilka, bainua hartzera. Gaitza bera baino indartsuago izan zen, ordea, eta Donostian zendu zen 1973an, artean hirurogeita bederatzi urte zituela.

### 12.2. Argitalpenak

1967an *UR de los vascos (teoría toponímica)* argitaratu zuen hiru tomatan. Ur erroa ama hizkuntzaren erroetako bat izango da seguruenik eta beste askotan bezala, euskeran UR erroa aberatsa baino aberatsagoa da.

Hirugarren liburukian Arratibelekin batera bildutako UR erroa duten

3.000 kontzeptu hidrikoei buruz eta UR erroa 2. edo 3. posizioan duten hitzen bilduma dago:

[Ur de los vascos\\_3.tomoa\\_84-105.orr](#)

### 12.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

«Ur de los vascos» izeneko hiru tomoekin, Jose Maria Sansineneak lortu du teoria bat sotzea 'ur' (espainieraz agua) ia unibertsala den hitzaren toponimiaren hedadurari buruz. Sansineneak uste du zientifikoki zuzentzat onartzea posible dela 'ur' elementua duten toponimoak bakarrik baliatu eta gero, kontuan harturik duten itzulpen geografiko 'hidrikoa', bi taldetan sailkatzea: a) UR toponimia positiboa, hots, ezaugarri hidriko nabarmenak dituen eskualde edo eremua. b) UR toponimia negatiboa, ezaugarri hauek erakusten ez dituen.

Honela murriztuz aztertu beharreko eremua, Sansineneak uste izan zuen hain teoria zabalaren benetako frogantza egin zitekeela herrialde euskaldunetik eta bere inguruetatik abiatuz, non gaur oraindik euskaraz mintzatzen den. Hasiera batean, bada, Sansineneak eremua murriztu zuen pentsatuz beste inork ez zuela anartean ikertu.

#### a) «Uri» herriak. Ezkararen etimologia... Ubagako Ama Birjina

Uri atzikia duten izen batzuk agertzen ditu Logroñon ugariak direnak: Casalareina (Nahar-uri izandakoa), Cuzcurrita, Cihuri, Gabarruli (¿Gabaruri?), Herramelluri, Morcuri, Ochanduri, Ollauri, Semenuri, Vermoduri, Uruñuela, Murillo de Río Lez, Gracurris (=Alfaro). Burgosen: Puras, Urez, Urquiza.

Berehala ohartu zen UR elementu linguistikoa agertzen zela ez bakarrik iturri eta ibaietan, baizik eta baita sakan eta trokarteetan ere. Konturatu zen trokarte menditsu hauek uda partean lehorrak egon arren, urari eusteko basorik ez zutelako, ur emaille bihurtzen zirela Oja ibai nagusiari adarren bidez emaria aportatuz. Horregatik uste izan zuen UR izen hauek agian lehenagoko benetako izen zaharren hondakina izango zirela, anartean euskaldunak ziren garaikoen, deformazioz eratorriak, Itur iturriaren kasuan bezala edota URA eta UR. Ezkarai hitz edo izenaren jatorriaz aipatzen du beste ikertzaile batzuek ezkarro-tik datorrela, gaur bertakoentzat espainierazko arce zuhaitza adierazten duena. Sansineneak bere 'kandidatura' aurkezten du Ezkarai izenarentzat hitzez hitz honela dioena:

*La instalación humana en el valle superior del río que hoy llaman Oja o Glera, viene probablemente desde la prehistoria. La zona de instalación elegida por aquellas personas, la desconocemos, pero no parece impropio el lugar que ocupa hoy la ermita de Ntra. Sra. de Allende, construida de nueva planta, o tal vez reconstruida, encima de otra que allí ocupaba parte del recinto (cuyas huellas parecen marcar un espacio dentro del cual se halla la ermita). El Dicc. Geog. del siglo XVII señala el pueblo en la ribera del río, parte baja del valle (donde está hoy) y comunicando con la otra orilla, con dos puentes; pasados los puentes, a cierta distancia, describe la ermita de Aliende (Allende de hoy) y subiendo el paseo o camino que bordea al río, se llega a la otra ermita, de nombre Ubagá.*

Penintsulan ere leku askotan agertzen da, adibidez: Urriello (Santander probintziako mendi espainol baten izena, Picos de Europakoa, espedizionarioek berbataiatua).

#### b) UR eta etruriera

Etruriera, hizkuntza zaharra, Italian bertakoa (?), liguriar eta iberiarren ondoan, Sansineneak dio garaiko ezagupenen arabera, Frantziar Narbonaraino iritsi zirela eta orobat okupatu zutela Akitania ere Landen eskualdea (Frantziar) eta "euskararekin zalantzarik gabeko erlazioak dituela". Ura adierazteko UR daukagula amankomunean.

Etruriar herri primitiboak ura gurtzen zuenaren aztarnak badaude. «Bazekiten lur azpitik ura ateratzen eta asko estimatzen zuten. Ura erakartzeko erritual bereziak zituzten. Antzinateko hainbat herritan bezala, hildakoen arimak izugarritzko indarra zuen euria sortzeko.

Etrurierak eta euskarak funts amankomun beretik hartu dituzte maileguak, hala nola egin duten beste hizkuntza zahar batzuek ere. Euskaldunok ez dakigu honera etorri ginen ala hemen jaiotzen ginen. Honera etortzean hizkuntza ekarri genuen ala hemen jaiota bertan sortu genuen. Baina badirudi beste herri batzuk, beste hizkuntza batzuk bazirela UR hiztunak, gure garaian bertan, munduko leku askotan. Logikoa dirudi gaur jada iraungirik dauden hizkuntza zaharren hondakin arkeologikoak –historiaurreko funts linguistikoaren hurbileko substratukoak– UR erlazio hidrikoak edukitzea, zeren eta etruriera, liguriera eta beste batzuk, K.a.-ko milaka urte lehenagokoak, mendebaldeko eskualde mediterraneoko hainbat hizkuntza garaikideak bezala, bai baitituzte erlazio hidriko hauek.

### **c) Preindo-europar oinarriak**

---

UR teoriaren unibertsaltasuna erakusteko, hemen aipatuko ditugu hainbat UR izendun erregeren zerrenda bat:

*Mesopotamia:* Urzage (2900) (klann), Urumush (2670-2660), Urnisin, Urgigir, Ur-Babbar, Ur-Nammu (2350-2332), Bursin, Uminurta, Bursin, Uraimitti, Luqalshagengur, Urnina (2875), Urukaquina, Urumma, Urbau (Gudea), Urgan, Urninsirsu (2400).

*Babilonia:* Hammurabi (2003-1961), Tazzi-Guromash (1636), Kurigalzu (1536), Burna-Buriashi ((1461), Kurigalzu III (1368), Kudur Emilil (1270), Shagarakti Shuriash, Nabu-Shum-Libur (1407), Nimurtkudur-Usur I, Mar-Biti-Apal-Usur II, Ashur-Nadin-Shun (700), Ashurbanipal Asiriakoa (647-626).

*Asiria:* Ashur Rabi (1440), Ashur Nirari (1459), Ashur Bel Nisheshi (1406), Ashur NadinAkhii (1396), Tukulti Ninurta (1256), Ashur Nadin Apli (1232-1214), Asur Mirari III, Enul-Kurur-Usur, Ninurta-Apal Ekur (1203), Ahur asko, Minurta asko, Clam Urtaki (1670) (2).

Ez dakigu zehazki non erreinatu zuten, baina badakigu buztin tauletan asko idazten zutela. Beren idazkera irakur daiteke eta geroz eta gehiago dakigu beraiei buruz.

### **d) Hegoamerika: bertako ibai handien arreak**

---

Para-Guai: Para-Guairi eman zioten izena zingiretatik dator. Uruguai ibaia: gauza bera gertatzen da, baina URU erro indigena dauka.

Venezuela: Urakoa ibaiak bere ertzetan Urakoa herria du, eta bere ondoan gainera lau aintzira daude, eta udaletik (sic) ez urrun ibai-portua dago izen berarekin. Uraka herria: Urakako populazioak badirudi bere toki geografikoa ibaiaren padura gainean edo gertu aukeratu zuela. Uraka edo Uraká izena egokia iruditzen zaio paduraren gainean dagoelako. Migratu zuen euskaldunen batek ala bertako indigenaren batek jarri ote zion izena? Venezuelan ere erabiltzen dira kanoa batzuk, «kuriarak» deituak. Zuhaitz-enborrean landuak daude eta gero suarekin tratatuak. Guar-rico, Ori-Tuko ibaia (Urituko ez ote den galdetzen du), Gua-Daira» hiria (erroa «ura»). Orinokotik Amazonasera: Yaracuy, Omuria, Tokuo, Uribatne, Apure, Mukuties, Zulia.

Andeak: Huayhuasch, Huarochiri, Huagorunchu, Huanzo, Huascaran, Huaraz (herria), Huanacpac, Huayna Pichu, Hualla-Hualla (mendartea), Huancavelica (herria), Huanuco (herria), Guadalupe (5.335) (espedizionarioek berbataiatua), Huandoy (6.395 metrora), Aconcagua (7.035 metrora), Raura (non jaiotzen den Maraño), Urubamba (Machu-Pichu-ren azpitik igarotzen den ibaia), Urkos (herria).